

BERTSOLARI TXAPELKETA NAGUSIA 2009

1. FINALAURREKOA - BERGARA
Aurkezlea: Alaitz Rekondo

GAIAK

SKO NAGUSIA

Fredi Paia eta Etxahun Lekue

Bikotea zarete. Hilabete honetan bukatuko duzue hipoteka ordaintzen.

Fredi hasita, hiruna bertso zortziko handian.

Aitor Mendiluze eta Jon Martin

Haurdun zaudete biok, eta emaginaren kontsultako itxarongelan zaudete. Aurrean duzue A gripearren aurkako txertoa hartzea gomendatzen duen kartela.

Aitor hasita, hiruna bertso zortziko handian.

Maialen Lujanbio eta Beñat Gaztelumendi

Zuen semeak neska bat bortxatu eta hil zuen. Haren aurkako epaiketa gaur hasiko da, eta oraintxe sartu zarete epaitegian.

Maialen hasita, hiruna bertso zortziko handian.

SKO TXIKIA

Etxahun Lekue eta Aitor Mendiluze

Zuk Etxahun mila aldiz esan zenien lagunei ez zenuela ezer berezirik nahi ezkontza-agurrean, baina Aitor streeperrarekin bakarrik utzi zaituzte gela batean.

Etxahun hasita, hiruna bertso zortziko txikian.

Beñat Gaztelumendi eta Fredi Paia

Zu Beñat, lanak eragindako estresari aurre egiteko terapia batera joan zara, eta Fredi nagusiarekin egin duzu topo han.

Beñat hasita, hiruna bertso zortziko txikian.

Jon Martin eta Maialen Lujanbio

Herri bereko bi herritar zarete. Zu Jon igandero joaten zara mezetara, eta eliza erdi hutsik egoten da. Gaur telebista meza grabatzera datorrela eta, inoiz ez bezala, Maialen ere etorri da.

Jon hasita, hiruna bertso zortziko txikian.

PUNTUARI ERANTZUNAK

Fredi Paia

Kiroldegia ere / txiki geratu da
Bertsozaletasuna / ei doa gorantza
Laurdenak bukatu ta / finalerdietan

Etxahun Lekue

Kantauri itsasoa / haserre zeharo
Aterkia ibiltzen / ohituta al zaude
Urtegiak berriro / goraino beteta

Aitor Mendiluze

Behobian korrika / hemezortzi mila
Batzuek gozatu ta / besteek sufritu
Horrelakorik inoiz / egin ote duzu

Jon Martin

Kooperatiba pila / hemen inguruan
Hemen ere badira / langabe ugari
Ditxosozko krisia / noiz bukatuko da

Maialen Lujanbio

Euskaldunak lehorrak / maitasun-keinutan
Besarkadak gutxitan / ematen ditugu
Nori eman, hemendik / jaisten zarenean

Beñat Gaztelumendi

Ta Telesforo Monzon / Bergaran jaio zen
Euskal Herria zuen / aberri bakarra
Zer pentsatuko luke / bizirik balego

6 PUNTUKO MOTZA

Etxahun Lekue eta Maialen Lujanbio

Lanpostu baterako elkarrizketa egiteko zain zaudete biok. Zuk Etxahun 52 urte dituzu, eta Maialenek 25.

Etxahun hasita, hiruna bertso hamarreko txikian.

Fredi Paia eta Jon Martin

Fredi, etxera heldu zarenean, Jon zure bikotekidea aurkitu duzu zure poltsa miatzen.

Fredi hasita, hiruna bertso hamarreko txikian.

Aitor Mendiluze eta Beñat Gaztelumendi

Bikotea zarete. Beñat lanetik erretiratu denetik, zuen elkarbizitza asko korapilatu da.

Aitor hasita, hiruna bertso hamarreko txikian.

KARTZELA

Argazkilaria zara. Oraintxe iritsi zara gertakariaren lekura, eta lanean hasteko unea da.

Hiru bertso nahi duzun doinu eta neurrian.